



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

Kimika Fakultateko irakaskuntza-plana: 2021-2022 ikasturtea

1.- SARRERA

COVID-19 pandemiaren egungo osasun egoera dela-eta, gure zentroan irakaskuntza-ikaskuntza jarduera berrantolatzen jarraitu behar dugu.

Dokumentu honetan laburbiltzen da dekanotza taldeak egindako proposamena, gure irakaslan antolatzeko 2021/2022 ikasturterako.

Ondoren datorren plana egiteko oinarritzko neurri batzuk hartu dira kontuan:

- 1.- Ikasleen arteko eta ikasleen eta irakaslearen arteko gutxieneko 1,5 m-ko tartea ziurtatzea modu orokorrean.
- 2.- Ikasleak ordu jakin batzuetan ez pilatzeko ordutegia aldatu egingo da, ahalik eta ikasle gutxienez ordu berean sarrerako atean pilatu ez daitezela.
- 3.- Gela berean ikasle-talde osoak ezin badu egon (aforoa dela-eta) bertan kabitzen ez diren ikasleak ikastetxeko beste gela batean egongo dira, ezinezkoa baita talde batek egun oso bateko jarduera guztiak fakultatetik kanpo egin ahal izatea.
- 4.- Musukoaren erabilera Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailburuak agindutakoa izango da. Dokumentu hau egin denean, musukoaren erabilera derrigorrezkoa da.
- 5.- Talde bakoitzak astero gela berbera erabiliko du, eta ikasle bakoitzak eserleku jakin bat izango du.
- 6.- Osasun agintariak hala adieraziko balute eta etxeko konfinamendu egoerara itzuliko bagina, 2019-2020ko azken lauhilekoan eman zen OnLine irakaskuntzara itzuliko ginateke.
- 7.- Normaltasuna berreskuratzeko bagenu, irakaskuntza ere aurreko urteetakora itzuliko litzateke.

Hau guztia kontuan izanda, hementxe Kimika Fakultateko irakaskuntza-plana.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

2.- KIMIKA FAKULTATEKO IRAKASKUNTZA-PLANA

2.1.- Ordutegi-aldaketa

Kimikako Graduan 1. eta 3. mailetako taldeek teoria-eskolak goizez jasoko dituzte, 9etatik hasita. Talde hauen praktiketako saioak arratsaldean izango dira 15:00etatik aurrera.

Aldiz, 2. eta 4. mailetako ikasleek goizez laborategiko saioak izango dituzte 9:30etatik hasita, eta teoria-eskolak arratsaldean izango dituzte 14:30etatik aurrera.

Ordutegi aldaketa horrekin lortzen duguna da edukiera handieneko lehenengo solairuko gelak erabiltzea (1-4 gelak, 2bis eta 3bis gelak barne) (salbuespen gisa, 8. gelan (sotoko solairua) gaztelaniazko "Identificación Espectrofotométrica de Compuestos Orgánico " eta ingelesezko "Química Física II" irakasgaiak emango dira).

Modu honetan ordu berean fakultatera sartuko den ikasle kopurua nabarmen murriztuko da, eta jende-pilaketak ekidindo dira laborategiko praktika gehienak ez baitira 1 solairuan ematen.

Graduko ikasleak sarrera nagusitik sartuko dira, eskuin aldeko atetik hain zuzen ere, eta irteera sarrera nagusitik egingo dute halaber, ezkerreko atetik.

Masterreko titulazioetan ez da ordutegi-aldaketarik izango. Hauek beheko ate automatikotik sartuko dira eta sotoko solairuan hartuko dituzte eskolak, graduko ikasleak bertatik atera baititugu.

Saioak 50 minutukoak izango dira, hurrengo saioa hasi baino lehen aretoa aireztatu eta irakaslearen mahaia, ordenagailuaren teklatua eta xagua desinfektatu ahal izateko. 2 orduko saioetan tartean atsedena egingo da.

2.2.- Irakaskuntza-mota

Erabiliko diren gelek 100 lagunentzako aforoa dutenez, %50era jeitsita, 50 lagun baino ez dira kabituko.

1. mailako eta 2. mailako euskarazko taldeak hori baino handiagoak izango balira, klase magistraletan irakaslea gela erdiarekin egongo da aurrez aurre, eta streaming bidez klasea beste leku batean proiektatuko da, libre dagoen beste gela handi batean hain zuzen ere. Gela honetan ikasleek parte hartu dezaten mikrofono bat ipiniko da, ikasleek zalantzak galdetu eta bestelakoak egin ditzaten aurrez aurre egongo balira bezala.

Gelako praktiketan eta mintegietan taldeak txikiagoak direnez, ez da horrelako streaming bidezko proiektiorik egin behar izango.

Ordenagailu-praktiketan aldiz ordenagailuen gelako aforoa 24koa denez, aldameneko ordenagailuen gela ere erabiliko da streaming bidezko sistema erabiliz.

Laborategiko praktiketan ikasle guztiak (eta irakasleak) musukoa, eskularruak, betaurrekoak eta amantala jantzita joango dira. Beraz, ez dago kutsatzeko arriskurik eta orain arte egin den bezala, 20ko taldeak sartuko dira laborategietan.

Jakintzagai batean irakasleak hala eskatuta, 20 lagun sartuko ez badira batera, laborategiko saioak bitan banatuko dira, erdia laborategian egingo da eta beste erdia BBC bidez (datu esperimentalen tratamendua, azterketa teorikoa, ...).

Kimikako Gradu ikasketen ezaugarriek hala eskatuta, ikasleak askotan egunero egon behar du ikastetxean, laborategiko saioak direla-ta. Horregatik, lehenetsi dugu maila bereko ikasle guztiak ikastetxean egotea, bi gelatan banatuta badaude ere.

2.3.- Segurtasun eta osasun-neurriak

Geletako eserlekuak identifikatuta egongo dira, eta ikasle bakoitzak leku berbera erabiliko du saio guztietan. Goizeko saioaren ondoren garbitu egingo dira geletako mahaiak eta aulkiak. Ikasgeletan eta ordenagailuen gelaren kasuan teklatuak eta xaguak film gardenaz estaliko dira eta norberak erabili aurretik desinfektatu egingo ditu horretarako gelan bertan jarrita egongo diren ontziak erabiliz. Dena den, eskularruak eskainiko dira.

Laborategietan eskularruak erabiliko dira derrigorrez ezin baita ziurtatu mahai guztiak desinfektatuko direnik egun batetik bestera.

UPV/EHUk langile eta ikasle orori bidali dien dekalogoan agertzen denez, Kimika Fakultatean COVID-19 arduraduna dekanoa izango da, eta COVID isolamendu-gela sotoan, tabernaren ondoan dagoen gela izango da.

2.4.-Aurrez aurreko jarduerak

UPV/EHU aurrez aurreko eskolak ematen dituen unibertsitatea da, eta bere nortasun hori mantendu nahi du ez-ohiko egoera berri honetan ere bai.

Kimikako Gradu ikasketetan ikasle guztiak Fakultatean egotea nahi dugu, klase magistral baten ondoren beste era bateko klaseak egongo baitira (gelako praktikak, mintegiak, ...) eta noski laborategiko saioak. Ikasleak goizez etxean eta eguerditik aurrera fakultatean egotea baino, bi gelatan banatuta egotea lehenetsi dugu. Beraz, irakaskuntza-mota hau aurrez aurrekoa dela esango dugu, irakasleak elkarren ondoan izango baititu bere ikasle guztiak, eta guztiek izango dute galderak egiteko aukera berbera.

Masterretako ikasleen kasuan kopurua txikiagoa denez ez dago aforo arazorik, eta gainera beste ate batetik eta beste solairu batean egongo dira.